

Banakako BGAEen merkatuan duen **lidergo** zabala handitzen jarraitu du, jadanik **% 48tik gorako kuotarekin**

Baskepensionesek kudeatutako ondarea 6.100 milioi eurotik gora kokatu da, % 12,5 hazita

- **BGAE berrien komertzializazioak indar handiarekin igotzen jarraitu du apirilaren amaierara arte, erakartze garbietan 55 milioitik gora eskuratu baititu, iazkoaren bikoitza baino gehiago**
- **% 73,6 hazi dira Baskepensionesek lortutako bereganatzeak**

2021eko maiatzaren 26an. Kutxabank Taldeak Euskadin kudeatzen dituen norbanakoen aurreikuspen-produktuek hazten jarraitu dute urteko lehen lau hilabeteetan, kudeatutako ondarean **6.100 milioi** euroko langa gaintitu baitute lehen aldiz, iaz garai berean baino **% 12,58** gorago. Gainera 2020ko ekitaldi amaieran jadanik **% 48tik** gora kokatzen zen bere merkatu-kuota.

Bilakaera honen gakoetako bat **saldo berrien sarrera garbiak** izan dira, urteko lehen hilabeteetan **55,3 milioi** eurokoak, 2020ko epealdi berean baino **% 110,4** handiagoak, hain zuzen ere.

Epigrafe honetan erabakigarria izan da egin diren informazio-kanpainak eta kudeaketa-komertzialek jasotako erantzun bikaina, bai eta Baskepensionesek lortutako **bereganatzeen** bilakaera ona ere, **% 73,6** hazi ostean.

Honela, norbanakoen aurreikuspen produktuetan duen **berezko lidergoa indartzea** lortu du Kutxabankek. Aipatzekoa da iazko urte amaieran jadanik **% 48ko merkatu-kuota** zuela. Gainera, inbertsioetan dibertsifikazio handia du, eta hau epe luzeko aurrezkiaren planifikazio eraginkorra egiteko ezinbesteko ezaugarria da.

Aurreikuspen produktu guztietan egiten diren inbertsio denak **gizarte ikuspegitik arduratsuak diren irizpideen baitan** burutzen dira. Honela, inbertsioak jasotzen dituzten erakunde guztiek Giza-eskubideak, ingurugiroaren zaintza Gobernu Zuzeneko jokabideak eta bidezko fiskaltza sustatzen dituzte beren jarduera-esparruetan.